

Galdera

Jatorrian pertsona-izena duten gaixotasunak, letra larriz ala letra xehez?

Erantzuna

Testuingurua zein den:

Izen berezia denean, letra larriz: «horrek **Parkinsonen** gaixotasunaren pareko sintomak ditu».

Izen arrunta bihurtu denean (lexikalizatuta), letra xehez: «horrek **parkinsonaren** pareko sintomak ditu».

1/ Hortaz, gaixotasun-, sindrome-, lege-, teorema-, printzipio-, eta zientzia-kontzeptuen osaeran izen bereziek parte hartzen dutenean, letra larriz hasita idazten da izen berezia, eta letra xehez izen arrunta:

'Parkinsonen gaixotasuna', 'Down sindromea', 'Ohmen legea', 'Pitagorasen teorema', 'Arkimedesen printzipioa', 'Plancken konstantea', 'Rorschach testa', 'Joule efektua'...

Lexikalizaturik daudenean, aldiz, nahiz eta jatorria pertsona-izena izan, izen arruntak dira, eta letra xehez idazten dira:

'parkinson', 'alzheimer'... (beraz, artikulua hartzen dute)

Adib.: «ikertzaile horrek alzhemerraren eta parkinsonaren aurkako tratamenduak hobetzen dihardu».

Gaztelaniaz ere hala da, eta azentu-marka eta guzti idazten dira: 'párkinson', 'alzhéimer'...

Unitateen ikurrak ere nazioarteko estandarretan ezarritakoaren arabera idaztekoak dira, eta jatorrian pertsona-izena duten unitateen ikurra letra larriz idatzi ohi da:

newtona (N), amperea (A), joulea (J), coulomba (C), pascala (Pa), watta (W), ohma (Ω)...

2/ Gehiago jakiteko:

[EIMA estilo-liburua *Letra larriak*](#) (53. or.)